



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokia urte eroetan murgiltzen da, 1920ko hamarkadan, Guggenheim Bilbao Museoko erakusketari lotutako zazpi emanaldiz osatutako programazio bereziarekin

- Azpimarratzekoa da *Los siete pecados capitales* opera, Kurt Weill eta Bertol Brecht-ena, Arriaga Antzokiaren ekoizpen liriko berria, ikusleek ekainaren 4an eta 5ean gozatu ahal izango dutena.
- Jerusalem Quartet musika talde prestigiotsuak eta Hila Baggio sopranoak bidaia musikal bat eskainiko digute maiatzaren 2an, Europa erdialdeko gerren arteko garaiko musika juduaren bitartez, Varsoviako Yiddish Cabaret-aren abesti bilduma eder bat interpretatuz.
- Beste emanaldi aipagarrien artean ditugu Miren Urbieta-Vega sopranoaren emanaldia (maiatzaren 19an), *París, años 20* kontzertuarekin, eta Ausrine Stundyte sopranoaren kontzertu formatuko emanaldia (ekainaren 10ean), *Erwartung*, Schönberg-en opera bikainarekin.
- Halaber, antzerkiaren arloan bi proposamen ditugu: *Doña Rosita, anotada*, Teatro Kamikaze-rena, maiatzaren 20an; eta *Kakerlake/Kafka*, Richard Sahagún-ena, ekainaren 12an.
- Programazioari amaiera emateko, Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) zinema-kontzertu saio bat eskainiko du ekainaren 19an, Nacho de Pazen zuzendaritzapean, Fritz Lang-en *Nibelungen-Sigfried tod* (1924) filmaren musika zuzenean interpretatuz.

Bilbo, 2021eko apirilaren 22a.- Arriaga Antzokiak, gaur goizean egindako prentsaurrekoan, maiatza eta ekaina bitartean eskainiko duen programazio bereziaren berri eman du: zazpi ikuskizun izango dira —opera bat, lau kontzertu eta bi antzezlan—, maiatzaren 7tik aurrera Guggenheim Bilbao Museoaan egingo den *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketari lotutakoak. **Amaia Arregi** Bilboko jarduneko alkateak parte hartu du aurkezpenean, eta alboan izan ditu **Calixto Bieito** Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoa eta **Juan Ignacio Vidarte** Guggenheim Bilbao Museoaren zuzendari nagusia, honako lankidetzaz hau bultzatzen duten erakundeen ordezkari gisa.

Amaia Arregik, hain zuzen, lankidetzaz horretan jarri nahi izan du arreta: "oso mugarri garrantzitsua da gure hiriarentzat, Bilbok ikuskizun handiez gozatu du Arriaga Antzokian, eta horiek Guggenheim Museoko obra handiekin lotuta egongo dira. Bilboko bi erakunde handi hauen artean sortutako sinergiak aukera ematen digu Bilbo artearen eta kulturaren nazioarteko erreferente gisa sendotzeko estrategiarekin jarraitzeko".

Komeni da gogoraraztea Guggenheim Bilbao Museoaren eta Arriaga Antzokiaren arteko elkarlan hau Calixto Bieito Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoaren inplikazioaren bidez sortu zela, berak egingo baitu maiatzaren 7an Museoaan

inauguratuko den *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketaren diseinua. Elkarlan horren helburua da, alde batetik, erakusketaren eszenografia aberastea, Bieitoren zigilu pertsonala emanez, eta, bestetik, bi erakundeen arteko elkarriketa Arriaga Antzokira hedatzea. Bertan, ikuspegia zabaltzen duten eta erakusketaren osagarri diren zazpi ikuskizun eskainiko dira. Horri dagokionez, Calixto Bieitok berak zera dio: "*Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketak Arriagari sakontzeko aukera ematen dio, gaur egungo testuingurutik, garai hartako eztanda sozial eta kultural zirrarragarria hainbat hurbilketa artistiko eginez, espiritu kritiko eta sortzailearekin, horretarako tokiko eta nazioarteko artistek parte hartzen dutela".

Juan Ignacio Vidarte Guggenheim Bilbao Museoaren zuzendari nagusiaren hitzetan, "lankidetzari esker, bi erakundeek duten harreman handia estutu daiteke eta beren jarduera pixka bat harago proiektatu, beren publikoei balio gehigarria emanez. Zalantzarik gabe, Calixto Bieitoren talentua eta ikuspegi artistikoa *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketaren eszenografian izateak, bisita paregabe horretan murgiltzen lagunduko digu. Azken batean, erakusketak garai bat islatzen du, non herritarrek sormenetik erantzun zieten gaur egungoak bezalako garai zailei, eta merezi du garai hartako bizitzeko espirituan murgiltzea ahalbidetuko digun esperientzia bat sortzea. Ildo horretan, Arriaga Antzokiaren programazioak ere aukera ezin hobea ematen digu 1920ko hamarkadako eromenean murgiltzeko".

Zazpi proposamen

Arriaga Antzokiak zazpi ikuskizunez osatutako egitarau erakargarria prestatu du, ikusleei XX. mendeko 20ko hamarkadako espirituan sartzeko aukera emango diena, hainbat ikuspuntu artistikotatik.

Lehenengo hitzordua musikala izango da eta gerra arteko garaiko musika judura hurbilduko gaitu. Musika hark eragin handia izan zuen European eta, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Estatu Batuetarako jauzia egin zuen. **Jerusalem Quartet** nazioartean ospe handia duen musika taldeak eta **Hila Baggio** soprano israeldarrak Varsoviako Yiddish Cabaretaren 1920ko hamarkadako abesti bilduma ederra interpretatuko dute maiatzaren 2an.

Maiatzaren 19an Arriagan **París, años 20** kontzertua egongo da, **Miren Urbietta-Vega** sopranoarekin eta **Sapere Aude Sinfoniettarekin**, **Alain Ayerdi**ren zuzendaritzapean. Kontzertu honek XX. mendeko lehen hamarkadetako ahots- eta instrumentu-ekoizpen kameristikoaren orrialderik onenen antologia jasotzen du. Hurrengo egunean, maiatzaren 20an, antzerkiaren txanda izango da. **Doña Rosita, anotada** Pablo Remón-ek Lorcaren azken lanetako bati buruz (*Doña Rosita la soltera o el lenguaje de las flores*, denboraren joanari buruzko tragikomedia) egiten duen berrirakurketa da. **Francesco Carril**, **Fernanda Orazi** eta **Elisabet Gelabert** dira Teatro Kamikazeren faktorian sortutako obra honen antzezleak.

Los siete pecados capitales Arriaga Antzokiaren ekoizpen liriko berria da, eta ekainaren 4an eta 5ean ikusi ahal izango dugu. Zalantzarik gabe, opera zaleek ezingo diote hitzorduari huts egin, izan ere, zazpi eszenatan banatutako ballet chanté "ballet kantatu" ospetsua, **Kurt Weill**en musika eta **Bertolt Brechten** libretoa dituenena, XX. mendearen lehen erdiko konposizio handienetako bat baita. 1933 da, Parisen, eta bai Weill, bai Brecht Alemania nazitik ihesi dabilta. Aurreko proiektu batzuetan bi pertsonaia ospetsu horien artean tentsio artistikoa sortu arren, erabaki zuten elkarrekin ekitea "Los siete pecados capitales" izeneko kabaret satiriko honi, elkarrekin egin zituzten lehen operatan elkartu zituen helburu berarekin: gizartea aldatzen saiatzea, moral bikoitza salatzen zuen zinismo korrosibo baten bidez. **Barbora Horáková Joly** izango da eszena zuzendaria eta **Iker Sánchez Silva** musika zuzendaria; ikuskizunak, halaber, **Bilbao Sinfonietta** orkestra eta **Nicola Beller Carbone** soprano alemaniarra

eta **Iratxe Ansa** dantzaria buru izango dituen abeslari, antzezle eta dantzari ugari bilduko ditu. Ansa berak sortuko du koreografia, **Igor Bacovic**ekin batera.

Nazioartean lehen mailakoa den beste soprano bat **Ausrine Stundyte** da, eta egun gutxi batzuk geroago ikusi ahal izango dugu bere emanaldia, ekainaren 10ean. Abeslari lituaniarra Arriaga Antzokira itzuliko da, non 2019an ikusleak liluratuta utzi zituen, Usandizagaren *Mendi-Mendiyan* bikain hura, Arriaga Antzokiaren ekoizpena zena eta Calixto Bieitok zuzendu zuena, euskaraz kantatuz. Orain, Stundytek **Erwartung** (*Itxaronaldia*) opera abestuko du kontzertu formatuan, **Arnold Schönberg** obraren egileak honela definitu zuen konposizio zoragarria: "Eszitazio espiritual goreneko segundo bakar batean gertatzen den guztia mugimendu motelean irudikatzean datza, ordu erdira arte luzatuz". Kontzertu honetan, Ausrine Stundytek **Andrej Hovrin** maisua izango du lagun pianoan.

Zazpi ikuskizuneko sorta honek bigarren antzerki-proposamen bat du.

Kakerlake/Kafkaz ari gara, Kafkaren *Metamorfosian* oinarrituta, **Richard Sahagúnek** egiten duen egokitzapenez. Sahagúnek zama poetiko handiko muntaia proposatzen du, antzezleekin eta musikarekin, eta Toti Martínez de Lezea gasteiztar idazlearen agertoki gaineko parte hartzearekin. Obraren emanaldia ekainaren 12an izango da.

Azkenik, Guggenheim Bilbao Museoaren *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketari lotutako programari amaiera emateko, eta Arriaga Antzokiaren 2020-2021 denboraldiari amaiera emateko, zinema eta kontzertua uztartzen dituen ikuskizun bat eskainiko da ekainaren 19an; izan ere, **Bilbao Orquestra Sinfonikoak (BOS)**, **Nacho de Pazen** zuzendaritzapean, **Sigfried tod** filmaren musika interpretatuko du, filma pantaila erraldoi batean proiektatzen den bitartean. Gogoan izan behar dugu film hori izan zela **Nibelungen** osatu zuten bi filmen lehen zatia, Fritz Lang zinemagile alemaniarrek 1924an landu zuen proiektu handinahiarena.

Sarreraren salmenta

Ikuskizun horietarako sarrerak ikusleentzat salgai egongo dira astelehenetik, apirilaren 26tik, www.teatroarriaga.eus webgunean edo Arriaga Antzokiko txarteldegietan. Salbuespen bakarra maiatzaren 2ko kontzertua da, Jerusalem Quartet eta Hila Baggioren eskutik egingo dena: sarrerak bihartik aurrera egongo dira salgai, apirilaren 23tik, ostiraletik.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus